



Gorka RUBIO - Jagoba MANTEROLA | FOKU

IKUSMIRA

INAUTERIETAKO KALE HUTSAK, OSPITALEAK HUSTEKO

Tolosan inauteriak, goiko irudian ikusten ez den bezala. Herenegungo argazkia da. Horrela ageri zen ostegun gizenean azaldu beharrik ez dagoen motiboa ez balitz beheko irudian bezalatsu ageri-ko zen plaza. Musika, poza, parrandarako gogo... eta jendetza. Nork esango zuen iazko gaurko egunez. Zerbait larria gertatu behar zen Tolosako inauteriak bertan behera uzteko, frankismotik itzuri ziren inauteri bakanetakoak. Hala berean, ez genuen imajinatu ere egiten zer gertatu behar zen sanferminak, Iruñean nahiz Lesakan, bertan behera uzteko. Edo Bilboko Aste Nagusia, Baio-

nako bestak, Gasteizkoak edo oraindik orain Abadiñon izan (ez) diren sanblasak. Penagarria, jaie-tan kaleak horrela ikustea; penagarria, egunero horrela ikustea. Are penagarriagoa, ordea, ospi-taleko gelak mukuru beteta ikustea, pandemian sinistuta zein ez sinistuta ere. Badirudi honezkero ez dagoela frogatu beharrik egun bakan batzuetako kale eta txoko jendetsuek ospi-taleak txikiagotzen dituztela. Xabier Izaga Gonzalez